

Behar beharrezkoak

pop-rock

GIPUZKOA

• JEXUXMAI LOPETEGI

Bidarte, 67 - ZARAUTZ Tel.: 943835990 (Jexuxmai)

rock

BIZKAIA

• ETSIAIK

LEKEITIO Tel.: 608394197

• PROYECTO GENOMA

ONDARROA Tel.: 657644493

• MPB

DURANGO Tel.: 946810969/ 656772413 (Lolo)

• ORBITNIK

DIMA Tel.: 946315653 (David) - 946319030 (Patxi)

GIPUZKOA

• IZURRI BERRIA

ORDIZIA Tel.: 943881375 (Eneko)/ 639181169 (Axier)

• KAASHBAD

Gorka Tel.: 686450048

soinuztapena eta argiztapena

GIPUZKOA

• IRUDIOTS

Gabiria k., 15 bentak auzoa - IRUN Tel.: 943631632

sonorizazioak

BIZKAIA

• AUDIOMIC

SONDIKA Tel.: 944711579 - 908675309

• INGUNZA

BILBO Tel.: 944731629

• ZUZENEAN

Elejalde auzoa, 14 ARRATZU Tel.: 946255206

trikitolariak

BIZKAIA

• LANDER, IHINTZA eta MARIA

Trikitixa eta Pandero ikastaroak - ARRATZU Tel.: 946256825

GIPUZKOA

• AGURTZANE ELUSTONDO

Saturnino Telleria, 1 - LEGAZPI Tel.: 943733515

• AINHOA ETA IDOIA TRIKITILARIAK

ZALDIBI Tel.: 943884229

• ELORTZA ANAIK

ZUMARRAGA Tel.: 943720882

• FURUNDA TALDEA

San Juan, Gain berri, 2 - ORDIZIA Tel.: 629690877

• KOLDO ETA IMANOL

BEASAIN Tel.: 943162283/ 676711988 (Koldo)

• LAJA MIKEL eta POXPI

Santa Kruz, z/g AZKOITIA Tel.: 943853075

• MUXUTRUK

ZARAUTZ Tel.: 943831775 - 609269125 (Azkonobieta)

Mahaiko kontuak zaintzen



EGUNKARIA

Edozein menu mota eskaintzen dute hainbat hainbat catering enpresak; prezio kontua da guztia.

Ogitartekoa baino nahiago izaten dute askok platerean jatea. Edonora heldu, jarri, jan eta bapo gelditu; azken finean, jatetxeetako menua eskain dezakete 'catering' zerbitzuek ere

Egiten dena egiten dela ere, hura egiteko nahikoa sasoi edukitzea ezinbestekoa gertatzen da, eta jai giroaren zurrunbiloan murgilduta joanda energia nahikorik izatea gorputzak ezinbestean eskertu beharrekoa du.

Sabela betetzeko eginbeharra gurean ez da nola nahiko kontua. Are gutxiago festetan. Gastronomía edozein arte motari ematen zaion lekuan jarri dute Euskal Herriko toki ugarietan. Ahal izanez gero, jatetxe baino gehiago museo diruditen jangela horietako batera hurbiltzea beherik ez dago hori frogatzeko.

Alabaina, jada ez da derri gorrezkoa jatetxeetara joatea hainbat jangelatoko mokadu ederrak dastatu ahal izateko. Bezeroak janari goxoa ahortu dezan bideak erraztu dituzte azken urteetan catering zerbitzuek, esaterako.

Talde handiei zuzendutako zerbitzua eskaintzen dute catering-ek

Egun, alde zaurerik finkatutako lekura jatetxeetako menuak eramatea badago, zenbait baldintza betez gero.

• Modan jarritako zerbitzua

Catering zerbitzuaren nondik norakoak argitu nahirik, Donostiako Amara Plaza hoteleko Catering Zerbitzuaren arduradunarekin izan gara solasean.

«Modan jarri den jarduna

da», diosku Rebecak. Negozioa, antza, ongi doa. Gero eta lan gehiago egiten dute catering zerbitzuek. «Orain, hasi ginenean baino langile eta ordu gehiago eskaintzen diogu catering zerbitzuari», dio Rebecak euren adibidea eskainiz. Dena den, bada zer hobetarik, Donostiako hoteleko langileak esaten duenaren arabera. Izan ere, Donostian ez dago catering zerbitzuaren eskaerak egiten dituzten leku edo areto gehiegirik. Gehienbat, Miramar jauregian egiten dugu lan. Lehen Miramonen ere aritzen ginen, baina orain beren kasa egiten dituzte janariak».

Ez dago zalantzan jartzetik, ordea, Donostia hirugarren sektoreko hiria dela, eta joera hori argiagoa da azkenaldian, hainbat areto berrik bere ate-